

ARGAZKI RALLY-AREN OINARRIAK 2016**SANTA LUTZI FERIAKO XXIV. ARGAZKI RALLYA
OINARRIAK**

PARTAIDEAK: Nahi duten zale guztiek parte hartu ahal izango dute.

IZEN EMATEA: Urretxuko Kultur Etxean, Jauregi Kanean, 2016ko abenduaren 13an, goizeko 9etatik 10etara. Izena emateko unean bertan 5 € ordaindu beharko da. Adingabeak 15 urte arte, dohainik.

LANAK: Digitala, JPEG. Nahi diren argazki guztiak atera ahal izango dira, horietatik 36 aurkeztuz.

GAIA: Urte honetako gaietako bat, Urretxuko eta Zumarragako udalen "Udal Lagunkoia" proiektuaren barruan, honako hau izango da: "Zahartzaroaren estereotipoak hautsi". Horren bitartez, adinean baina aktibo daudenen ikuspegi positiboa eta errealista eskaini nahi da; azken finean, helburua laguntasuna eta parte-hartzea bultzatzea baita, ongizatearen eraikuntzan.

Gainerako gaiak izen-emateko orduan jakinaraziko dira.

AURKEZPENA: Tarjeta deskargatzeko, Urretxuko Kultur Etxean 13:30etatik 14:00etara.

OBRAK LEHIAKETARA AURKEZTEA: Aurkeztu beharreko bilduma 6 argazkik osatuko dute. Abenduaren 14an, 24:00etan baino lehen argazkilari bakoitzak mezu bat bidaliko du ondoko helbidera: argazkielkarte@gmail.com bertan, kontroleko argazkiak eta aukeratutako 6 argazkien zenbakiak zehaztuko ditu.

EPAIMAHAI: Gutxienez hiru pertsona izango dira, argazkigintzan ospe handikoak.

ERABAKIA ETA SARI BANAKETA: Erabakia hartzeko saioa eta saria banaketaren ekitaldia jendaurrean egingo dira. Erabakia hartzeko saioa 2016ko abenduaren 19an, arratsaldeko 6:30etan, Zumarragako Kultur Etxean. Sari banaketaren ekitaldia, berriz, 2016ko abenduaren 23an, Zumarragako Kultur Etxean arratsaldeko 7:00etan.

SARIAK: Honako sari hauek izango dira:

- Argazki bilduma onenari: 250 € eta garaikurra.
- Bigarren bilduma onenari: 200 € eta garaikurra.

- Hirugarren bilduma onenari: 150 € eta garaikurra.
- Herriko bilduma onenari: 100 € eta garaikurra.
- "Urretxu-Zumarraga Lagunkoia" herriko argazki onenari: 150 € (Bitartean baleoparia).
- Gaztetxoen bilduma onenari: 50 € eta diploma.
- Gaztetxoen bigarren bilduma onenari: 30 € eta diploma.
- Gaztetxoen hirugarren bilduma onenari: 20 € eta diploma.
- "Urretxu-Zumarraga Lagunkoia" gaztetxoen herriko argazki onenari: 100 € (Bitartean baleoparia).

Bide batez, argazki saridunak edo argazki aukeratu batzuk erabiliko dira Santa Lutzi Feria 2017 programan.

OHARRAK: Inork ezingo du sari bat baino gehiago eskuratu.

Argazki lehiaketan parte hartzen duenak goitik behera onartzen ditu oinarri hauek. Oinarriotan jaso gabeko gorabehera oro antolatzaileek erabakiko dute. Sariren bat irabazitako bildumak antolatzaileen esku geratuko dira. Lan guztien erabilera eta erreprodukzio eskubidea beretzat erreserbatuko dute antolatzaileek, lanen jatorria aipatuz beti ere.

ARGIBIDEREN BAT NAHI IZANEZ GERO, EDO INFORMAZIO ZABALAGOA, URRETXUKO KULTUR ETXEAREKIN JARRI BEHAR DA HARREMANETAN. 943 03 80 88.